



LEHENDAKARIAREN EBAZPENA 21/2021

Udalbiltza Partzuergoko LEHENDAKARIAREN 21/2021 EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 21ekoa, 2021eko *Geuretik Sortuak* sormen beketako film laburren lan epea luzatzea ebazten duena.

ADIERAZTEN DUT

2021eko urtarrilaren 19an Udalbiltza Partzuergoak *Geuretik Sortuak* kultura sorkuntzarako beka deialdi eta oinarri arautzaileak argitaratu zituen.

Adierazitako oinarrien 14. artikulua eta beka deialdiaren 6. Puntuan xedatutakoaren arabera: *“Sormen lanak egiteko ondorengo epea izango dute onuradunek, diziplina artistiko bakoitzeko, beranduenez:*

1. *Eleberri motza/ipuina: 2021eko irailaren 17ra arte.*
2. *Antzerki obra: 2022ko urtarrilaren 28ra arte.*
3. *Film laburra (postprodukzioa barne): 2021eko azaroaren 26ra arte.”*

Film laburraren sormen lanaren konplexutasuna eta egin beharreko postprodukzioaren eskakizuna ikusita, Udalbiltza Partzuergoko Lehendakaria naizenez ondorengo

EBATZI DUT

LEHENA.- Film laburrerako Geuretik Sortuak beka deialdiak eta oinarri arautzaileek zehaztutako entregatze data luzatzea 2021eko abenduaren 26ra arte, aurrez aipatutako lanaren konplexutasuna eta egin beharreko postprodukzioaren eskakizuna dela eta.

BIGARRENA.- Film laburren diziplinan onuradunak izan diren kulturgileei erabakia jakinaraztea ebazpen hau Udalbiltza partzuergoko webgunean argitaratu bezain laster.

Oiartzunen, 2021eko maiatzaren 21ean

Angel Jabier Asurmendi Sainz, Lehendakari Jaunak agindu eta izenpetzen du, nik neuk, Idazkari naizenez ziurtatzen dudalarik.

